



PRENTSARAKO OHARRA

18/11/29

GUFEk 10.771 ordezkapen kontratu egin zituen 2017an, eta bakotxaren batez besteko iraupena 21,10 egunekoa izan zan

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak gaur goizean batzordean, Batzarretako EH Bildu taldeak egindako galderari erantzunez, Gizarte Urgazpeneko Foru Erakundeak 2016an eta 2017an egin eban interinidade kontratu kopurua jakinarazo dau, eta baita kontratu horreen batez besteko iraupena be.

2016an GUFEk 12.146 ordezkapen kontratu egin ebazan, eta bakotxaren batez besteko iraupena 17,72 egunekoa izan zan, guztira 155.056 ordezkapen jardunaldi erregistrauz. 2017ari jagokonez 10.771 kontratu egin ebazan, 21,10 egunekoak batez beste, eta erregistrautako jardunaldiak 159.085 izan ziran.

Modu berean, ekitaldi horreetan, ordezkapenen gitxieneko iraupena egun batekoa izan da, eta gehieneko iraupenak “urteko egun guztiak hartu daikez, indarrean dagon arauzko hitzarmena kontuan izanda”, aldi baterako ezintasunarengaitik egiten diran ordezkapeneko kontratuetan, jardunaldi murrizketaren ondoriozko denpora partzialeko kontratuetan, sindikatu lanak dirala eta egiten diran liberazinoetan eta postuak erreserbauta geratzen diran eszedentzietan, besteak beste.

Azaldutako datuei jagokenez, Sánchez Roblesekin esan dau kontratu kopuruaren jaitsiera eta kontratautako egunen batez bestekoaren gorakadea, “lanera ez joateen kudeaketa prozesua hobetzeko egin dan hobekuntzarako proiektuak” sortzen dauela. Horren helburua “kontratu egonkorragoak eta iraupen luzeagokoak” sortzea da, lanak metatzeko prozesuan oinarrituta. Horri, deitu diran EPEak gehitu ezker, “enplegua egonkorragoa bihurtzen da”.

Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekidearen eretxiz, egoera horrek “lantaldearen inguruko gogoetea eskatzen dau”. Holan, Urkaregik, ordezkapenatarako, “lantaldearen barruan lan poltsea sortzea” proponidu dau, ordezkapen horreek modu egokian beteteko.

Aurretik, Gizarte Ekintzako Batzordeak agerraldi eskari bi erregistrau ditu, Podemos taldeak eta Talde Mistoak aurkeztutakoak, “beharginek jasaten dituen lan baldintzen, eta horreek dirala eta lantaldeko murrizketek zerbitzuan daukien ondorioen” inguruan sindikatuak aurkeztu dituen salaketak dirala eta. Horrez gain, “Sailak eta GUFEk 2015etik lantaldean ordezkapenak egiteko defendiduten dituen erespideen” ganeko azalpenak be eskatu ditue.

Foru Diputatuak azaldu dauenez, lantaldeak “egonkor” jarraitzen dau, 881 beharginekin, 2011 eta 2016 artean enplegu publiko eskeintzak egitea ezinezko bilakatu eben estaduko aurrekontu orokorren ondorioz beharginak kontratatuko orduan mugak egozan arren.

Halanda be, muga horreek hor egon diran arren “erakunde honek modu egokian bete ahal izan ditu personen ondo izatea eta eskubideak”.

Ondorengo puntuetan azaldu dauen moduan, 2016tik GUFEn enplegua egonkortzeko prozesuan murgilduta dago. Horri jagokonez, azaldu dauenez, azkenengo 3 urteetan 247 lanpostu eskeini dira: erizainak (26), osasun laguntzaileak (126), administrazioa (25), goi mailako teknikariak (4), gizarte langileak (7), gizarteratze arloko goi mailako teknikaria (39), gizarte hezitzailea (18) eta fisioterapeuta (2).

Ordezkapenei jagokonez, Sánchez Roblesek azaldu dauenez, “erespidea zentroaren antolakuntza kudeaketea da, eraginkortasunean eta zerbitzuaren kalidadean oinarrituta”.

PLAZEN KUOTEN IGOEREA EGOITZA PUBLIKOETAN

Podemos taldeak beste agerraldi eskari bat egin dau, egoitza publikoetako plazen kuotak igotzeko Aldundiak izan dituan errazoiak ezagutzeko. Isabel Sánchez Roblesek azaldu dauenez, joan dan garagarrean izandako pentsinoen igoerearen ostean, Foru Aldundiak “Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2018ko Aurrekontu Orokorren ganeko 4/2017 Foru Arauan ezarrita dagon %1,5era arte eguneratu ditu prezio publikoak”. Adierazo dauenez, eguneratze hori “zezeilean egin zan %0,25eko eguneratzea be kontuan izanda” egin zan, “aldean oinarrituta kalkulatur”.

Podemos taldeak familiei eta erabiltzaileei zuzendutako informazio falta dala eta egin dauen kritikaren, eta Talde Popularrak ohartarazpenen aurrerapenaren ganean egin dauen erantzun-eskearen aurrean, Diputatuak adierazo dau joan dan irailaren 26an mezu elektronikoa bialdu jakela foru sareko zentro guztiei eta Zugasteli, prezioen eguneratzearen barri emoteko.

UMEEN GARAPENERAKO ETA ARRETA GOIZTIARREKO ZENTROEN SAREA

Saioa bukatzeko, Diputatuak Podemos taldeak planteau dituan ahozko azkenengo erantzun-eske biei erantzun deutse. Lehenengo puntuan, Sánchez Roblesek ziurtatu dau, azkenengo zentroa erregistratu ostean, une honetan “Bizkaiko eskualde guztiek daukiela arreta goiztiarreko zentro bat”.

Bukatzeko, eta Bizkaiko Batzar Nagusian onetsi zan eta, arreta berezia behar daben soslaiak daukiezan adinbako kasuetan aurrera eroan beharreko jarduketak eta adinbako horreek aurkitu ostean aurrera eroan beharreko jarduketak lantzeko baimendu bako ez egoteen protokolo komunaren Jarraipenerako Batzordearen deialdia eskatzen eban Arauz besteko proposamenagaz bat etorrita, joan dan urriaren 18an deitu zan.

Horri jagokonez, Sánchez Roblesek adierazo dau joan dan urriaren 18an deitu zala, eta hori dala eta, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiak “pozik agertu zirala protokoloa martxan jarri izateagaitik”. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere aldetik, Batzarrek lanerako esparrua sortzeko eukien eretxia aurkeztu eban. Une honetan, azaldu dauenez, lan teknikoa ari da egiten.

NOTA DE PRENSA

29/11/18

El IFAS realizó en 2017 un total de 10.771 contratos de sustitución con una duración media de 21,10 días

La Diputada Foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha dado a conocer esta mañana en comisión, a pregunta del grupo juntero EH Bildu, el número de contratos de interinidad que el Instituto Foral de Asistencia Social realizó en 2016 y 2017, así como la duración media de los mismos.

En 2016, el IFAS realizó 12.146 contratos de sustitución con una duración media de 17,72 días y registró un total de 155.056 jornadas de sustitución. En 2017, por su parte, realizó 10.771 contratos con una media de 21,10 días y 159.085 jornadas de sustitución registradas.

De igual manera, en sendos ejercicios, la duración mínima de sustitución ha sido de un día, mientras que el máximo “puede llegar a abarcar todos los días del año según el convenio normativo vigente” en casos como contratos de sustitución por incapacidad temporal, contratos de reducción de jornada a tiempo parcial, liberaciones sindicales y excedencias con reserva de puestos.

En lo referente a los datos expuestos, Sánchez Robles ha apuntado que el decremento del número de contratos y el incremento de la media de días contratados viene generado por “un proyecto de mejora llevado a cabo para la optimización del proceso de gestión de ausencias”. Éste tiene como objetivo “generar contratos más estables y de mayor duración basados en ese proceso de acumulación de tareas, lo que, junto con a las OPES lanzadas, “redunda en una mayor estabilización del empleo”.

Para la apoderada de EH Bildu, Arantza Urkaregi, esta situación “exige una reflexión en torno a la plantilla”. En este sentido Urkaregi ha propuesto, como vía para las sustituciones, la creación de “una bolsa en la plantilla para poder cubrir bien esas sustituciones”.

Previamente, la Comisión de Acción Social ha registrado dos peticiones de comparecencia presentadas por los grupos Podemos y Grupo Mixto en torno a las denuncias sindicales relativas a “las condiciones laborales que sufren las y los trabajadores y, con ello, la repercusión de los recortes en la plantilla en el servicio”, así como “los criterios que defienden el Departamento y el IFAS desde 2015 para la sustitución de plantilla”.

La Diputada Foral ha manifestado que la plantilla permanece “estable” con 881 trabajadores y trabajadoras, a pesar de las limitaciones a la contratación del personal derivadas de las sucesivas leyes de presupuestos generales del estado que entre 2011 y 2016 no permitían acometer ofertas de empleo público.

Sin embargo, estas limitaciones “no han impedido a este instituto satisfacer de forma correcta el bienestar y los derechos de las personas “.

Como ha explicado en puntos posteriores, desde 2016, el IFAS se encuentra inmerso en un proceso de estabilización del empleo. A este respecto ha manifestado que, en los últimos 3 años, se han ofertado 247 plazas correspondientes a los puestos de enfermería (26), auxiliar sanitario/a (126), administración (25), técnico/a superior (4), trabajador/a social (7), técnico/a superior de integración social (39), educador/a social (18) y fisioterapeuta (2).

En lo que a las sustituciones respecta, Sánchez Robles ha explicado que “el criterio no es otro que la gestión organizativa del centro bajo parámetros de eficiencia y calidad del servicio”.

INCREMENTO DE LAS CUOTAS DE LAS PLAZAS EN LAS RESIDENCIAS PÚBLICAS

El grupo Podemos ha sustanciado una segunda petición de comparecencia en relación a los motivos que han llevado a la Diputación a incrementar las cuotas en las plazas de residencias públicas. Isabel Sánchez Robles ha explicado que, tras la nueva subida de las pensiones realizada el pasado mes de julio, la Diputación Foral “ha procedido a actualizar los precios públicos hasta el 1,5% establecido en la Norma Foral 4/2017 de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2018”. Una actualización que se realizó, como también ha apuntado “teniendo en cuenta la actualización ya realizada en febrero del 0,25%, calculándola por diferencia”.

Ante la crítica del grupo Podemos sobre la falta de información a las familias y personas usuarias, y la pregunta del Grupo Popular sobre la antelación con la que se ha avisado, la Diputada ha manifestado que el 26 de septiembre se remitió un mail a todos los centros de la red foral, así como a Zugastel, informando de la actualización de los precios.

RED DE CENTROS DE DESARROLLO INFANTIL Y ATENCIÓN TEMPRANA

La Diputada ha finalizado la sesión respondiendo a dos últimas preguntas orales planteadas por el grupo Podemos. En un primer punto, Sánchez Robles ha asegurado que, tras el registro de un último centro, actualmente “todas las comarcas de Bizkaia tienen centro de atención temprana”.

Por último, y en concordancia con la PNN aprobada por las Juntas Generales de Bizkaia en la que se solicitaba la convocatoria de la Comisión de Seguimiento del protocolo común para ausencias no autorizadas con objeto de tratar las actuaciones a desarrollar en los casos de menores con perfiles de especial atención, así como las actuaciones a desarrollar una vez localizadas las personas menores de edad.

A este respecto Sánchez Robles ha declarado que ésta fue convocada el pasado 18 de octubre, y que como consecuencia de ella las Diputaciones Forales de Gipuzkoa y Araba “manifestaron su satisfacción por la puesta en marcha del protocolo”. La Diputación Foral de Bizkaia, por su parte, trasladó la opinión de la Cámara de crear un marco de trabajo. Actualmente, según ha explicado, se está desarrollando un trabajo técnico.